



## **Mendiko abelzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa**

2020ko otsailaren 5ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak Otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko tramitazioaren hasera onartzea erabaki zuen, Naturzaintza–Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen gehiengo aurka bozkatu arren.

2021eko otsailaren 4an Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzten duten elkargo autonomoen ordezkariak aurka bozkatu arren.

Aurrez aipatutako Batzordearen diktamena ez loteslea bada ere, Ministeritzako arduradun nagusien hitzetan, batzordeak hartutako norabideari eutsi egingo diote azken muturreraino.

Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abelzaintza estentsiboarengan ondorioak larriak eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abelzaintza estentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat.

Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak, ...) mendian kudeatzen dugun abeltzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bizitu dugun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez, erabakiaren azken helburua hori ez bada ere, abelzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsibora joan beharko dugulako.

### **Honenbestez, abeltzainok , ----- udalari honako hau eskatzen dio:**

1- .....ko Udalak bere konpromezu tinkoa agertu nahi du mendiko abelzaintzarekin eta gure mendiak larretzen dituzten ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiekin. Aziendaren maneju estentsiboak, kalitatezko eta elikagai osasuntsuen ekoizpenarekin batera, ingurunearen zaintza eta kudeaketarako tresna baliagarrienetarikoda delako eta honenbestez, mendiko abelzaintzarako mehatxua den otsoaren populazioa kontrolatuko dituen neurriak eta araudiak eskatzen ditu.

2- .....ko Udalak helaraziko dio Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzari, mendiko abelzaintzaren aldeko apustua egiten duela eta honenbestez, otsoaren babesa areagotzeko erabakiaren aurka eta otsoaren populazioa kudeatu ahal izateko baliabide guztiak har ditzala kontuan, besteak beste, ehiza.

3- Udalak helaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailari ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu eta honekin otso populazioei sarrera eta egonkortzea erraztu. Ez dezan kolokan jarri abeltzakntza estentsiboa. Gurea bezelako lurralde txikian, mendiko abeltzaintza elkarbizi ezinezko praktika da eta otso populazioekin.